



Detektagailuak

Detektagailuei buruzko ohiko galderak:



Metal detektagailu bat erostea pentsatzen ari naiz; legala al da? Ba al dago metal detektagailuak erabiltzeko murrizketarik?

EZ EROSI iraganeko objektuak bilatzeko asmoz, zeren eta metal detektagailuak baimenik gabe erabiltzea ondare arkeologikoa HONDATZEKO eta ESPOLIATZEKO modu bat da.

Erabat debekatuta dago zona arkeologikoetan*. Soilik Araban milaka aztarnategi baino gehiago daude dokumentatuta, beraz, baliteke detektagailua erabiltzea delitua den leku batean erabiltzen aritea.

Detektagailua ezagutzen ditugun zona arkeologikoe-tatik kanpo erabiliz gero, ondasun arkeologiko bat aurkitzen duzun unean jarduera oro eten behar duzu, Arabako Arkeologia Museoa **berehala jakinarazi behar diozu** eta aurkitutako ondarea leku horretan bertan utzi behar duzu.

* Arabako Foru Aldundiaren baimena eduki ezean, lurzorua iraultzen duen prospekzio geofisikoa baita.

Ezin duzu objektua zeuretzat gorde, ondasun arkeologikoak jabari publikokoak baitira, eta ez duzu inolako konpentsaziorik eskuratuko aurkituntzagatik, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legean EZ baita horrelakorik aurreikusit.

Horrez gain, Araban aurkitutako objektu arkeologiko guztiak **BIBAT - Arabako Arkeologia Museoa**n gorde behar dira, gure lurraldeko material arkeologikoen gordailu ofizialaren zentroan, alegia. Ez entregatzea oso arau hauste larria da, eta 1.000.000 eurora arteko isunak eragin ditzake.

1985az geroztik aurkitutako material arkeologikoen **salmenta erabat debekatuta dago**.

Testuingurua dokumentatzeko eta objektuak eta egiturak ateratzeko berarriazko metodoa eskatzen duen zientzia da arkeologia. Metodologia hori jarraitzen ez bada, datu berreskuraezinak galdu egiten dira, hain zuzen ere aurkitutako objektuak bezain baliotsuak edo are baliotsuagoak izan daitezkeen datuak.

Beraz, gogoratu:

Ondare arkeologikoa ondo dago dagoen lekuan. Ehunka edo milaka urtez biziraun du, eta ez dago arriskuan kontrolatu gabeko lur mugimendurik ez badago.

Historiaz eta naturaz gozatzeko modu asko daude. Arabak bisitatu beharreko ehunka leku zoragarri ditu, paseatzea eta gozatzea besterik eskatzen ez dutenak. Gure iragana deskubritzeko museo zoragarriak, milioika liburu eta online baliabide ugari dituzu eskuragarri.

Jarraibide hauek idazteko indarrean dauden lege eta arau hauek hartu dira oinarritzat:

Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea

195/2018 Dekretua, Bihotxo Burdin Hesia eta defentsak (Araba eta Bizkaia), monumentu multzo kategoriarekin, kultura ondasun kalifikatu izendatzeko dena.

323/1991 Foru Dekretua, zeinaren bidez Arabako lurralde historikoko jarduera arkeologikoak arautu diren.



Objektu arkeologikoak ustekabean aurkitzea

Ondasun arkeologiko bat ustekabean aurkitu dut; **zer egin behar dut?**



araba álava
foru aldundia diputación foral